

# Euskara batuaren geroa

*Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi"*  
*EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Donostia*

**1993. urteko uztailaren 19an, UEUko XXI. edizioan emandako  
sarrera-hitzaldiaren testua.**

Euskara Batuaren oinarriak Arantzazun finkatu zirenez geroztik hogeita bost urte joan dira. Ahoskera Batua, aldiz, jaiokizun dago oraindik. Bidezkoa da "lehen urratsak" (Mitxelena beraren hitzez esateko), Idazkera Batuaren alorrean gertatzea.

Baina gauzak horretan utzi, eta Ahozko kodeaz ez arduratzea, erdal fonologiei ateak zabaltzea da. Biri gainera.

Eginkizuna soziolinguistikoa izanik, guztiz funtsezkoa da hiztunen dinamika nagusia non dagoen kontutan hartzea.

Zoragarria litzateke, beste herritako ibilbidea ezaguturik (Turkia, Norvegia, Israel). Ahoskera Batuaren abiagunetzat euskaldun hiri bat hartzea. Euskal Herrian, ordea, ez dugu horrelakorik. Hedagune izan daiteke, dena dela, Donostiaren ingurua. Bai gipuzkera euskalki muturrekoetatik urrun dagoelako; eta baita arazo soziologikoengatik ere: euskaraz ari diren instituzio nagusi batzuk Donostia inguruan daude kokaturik.

Since the Assembly of Aranzazu twenty-five years ago, which built up the foundations of the Unified Written Basque, a quarter of century is gone. Nevertheless the Unified Oral Basque is not born yet.

It was normal the "first step" (if we use the same words of Mitxelena) to be accomplished in the field of Written Basque.

But it would be non-sense now not to go onwards. Because this would open the door to all kind of phonological interferences. Namely to two sets of interference.

The matter is a sociolinguistic one. So it is essential us to be fixed about the place where the bulk of the Basque speakers live and work. The experience of other peoples is there (Norway, Turkey, Israel); and it could be perfect we Basques to go thorough the same way. But, unfortunately, we don't have any Basque speaking city. The hinterland of San Sebastian can become this cultural centre. First of all, because the guipuscoan dialect, is far away from the most differentiated dialects. And, secondly, because most of the institutions leading the normalization of the language, are located near that town.

1- Arantzazuko Biltzar ospetsuaz geroztik, 25 urte iragan dira. *Izkribuzko Euskarari* buruz han ezarritako oinarriak, sendotu egin dira. Egun haietan ereindako haziak eman du fruiturik. Honetaz ez dago zalantza-izpirik. Gure herriak eredu ere bihurtzeko mailako erraldoi-urratsak egin ditu. Gehiegizko liskarrik gabe, oro har, hortxe dugu, denon gidari, Euskal Herri euskaldunaren ardatz eta tresna baliagarri mamiturik.

Arantzazu ondoren espero genuen *Ahozko Euskara Batura*, berriz, jaiokizun dago oraindik. Zain gauzkan *Ahoskera Batua* (edo *Euskararen Ortoepia*, nahiago baldin baduzue) 25 urte honetan ez da oso gauzatu. Prestatzeko abiada hura, moteldu egin dela esango nuke. Eta moteltze horrek ondorio kaltegarriak ekarri ditu euskararen bilakaeran; eta, hein batez, Arantzazuko arrakasta bera kolokan jarri, eta lortutakoa lardaskatu.

Zinez uste dut (eta uste *dugu* euskaltzale askok) garaia dela *Ahoskera Batuari* buruzko bigarren pausu hau ematen hasteko. Gaurko nire hitzaldiak, berriro ere, pausu horren behar gorria azpimarratzea beste helbururik ez du.

Nire mezua hitz honetara biltzen da: *aurrera!*

2- *Normalizazio-prozesuetan*, eta aisa uler daitezkeen arrazoiengatik, *hizkuntza idatziaren* batasuna lortu ohi da aurrenik; baina benetako helburua *hizkuntza mintzatuaren* batasuna da. Ezinbestean. Hizkuntza “biziak” *ahozko* komunikazioan erabiltzen diren hizkuntzak baitira. Latina, sanskrito, greko klasikoa, *ahozko* mintzaketa erabiltzen ez direlako deitu ohi dira hizkuntza “hilak”.

*Izkribuzko* kodeaz besterik ezagutzen ez ditugun hizkuntzen zientzi sailari, hain zuzen, “Filologia” deritzo. Filologiak ahoz erabiltzen ez diren hizkuntza idatziak ditu ikergai; eta testuen azterketa du bere eguneroko ogia.

Euskara testu-ikerketaren bidez lantzeari inola ere muzin egiten ez badiogu ere, euskararen problematika sanskritoaren parekotzat hartzeari, ordea, ez deritzogu batere egoki.

Gure mintzaira hizkuntza “bizia” denez, eta geroan ere herri-mintzabidea *ahozkoa* izango den esperantza eta heinean, *Fonetika eta Fonologiaren* alorrean bilatu behar zaio bere bidea. Euskararen kode idatzia finkaturik normalizazio-lana bukatutzat eman nahi bide dutenek, *Euskal Herriko sanskritotzat* hartzen dute euskara. Eire-ko ingelesdun “gaelikozale” (?) gehiegik hartu zuen bezala. Eiretarren zoritxarrerako!

3- Kode idatzia finkatzea *lehen-dabiziko* eginkizuna zen. Zalantzarik ez. Eta hau Mitxelenak berak utzi zuen garbi asko 1968ko bere txosten famatuan: “Ezinbestekoa, hil-edo-bizikoa, dela uste dugu euskera batasun-bidean jartzea. Haur eta gazteei euskeraz irakasten baldin bazaie, eta euskeraz irakatsi behar euskera biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakatea. Nahi eta behar dugun batasun hori, *lehen urratsetan* behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da”. (Arantzazuko Txostena, I. Oinharriak, 23; 1968).

Orain dela 50 mende lehenengo izkiria-teknikak gizakiak asmatu arte, milaka eta milaka urtetan barrena, eta milaka hizkeratan, *ahozko* mintzaira

izan zen bakarria. Ahantzi egiten bide zaio hau askori: hizkuntzen baliabide eta bizimodu normala, ahozkoa dela. Martinet-en hitzez esatekotan: "(il faut rappeler) le caractère *secondaire et dérivé* de l'écriture par rapport à la parole".

Prahako Eskolaren ekarria Linguistikaren habe nagusi bihurtua denean, alferrikako dirudi hau errepikatu beharrak.

Euskararen *ahoskeraz* orain ez arduratzea, zentzugabekeria hutsa da. Arreta euskararen idazkeran besterik ez jartzea, desbideraketa larritzat salatu behar da. Azken funtsean ahozko kodeari baitagokio lehenatasuna.

4- Aurrera egingo badugu (eta zentzuz egingo badugu, jakina), Euskaltzaindiak (eta beste hein batez UZEI-k eta Elhuyar-ek) orain arte *kode idatziari* buruz hartutako erabakien *gainean* eraiki beharko dugu. Ez bailitzateke oso bidezkoa orain arte lortutakoa, sistematikoki behintzat, orain dardaratzea, ukatzea edo uzkailetea.

*Testu batua badugu* -hein batez bederen-. Baina testu hori *nola ahoskatu behar* den ez dakigu. Nork bere modura esan dezala proposatzea ez da deusik.

Arazoak ditugu, jakina. Batzuk orokorrak, edozein kode idatzitan aurkitzen diren plegukoak. Besteak gureak dira, Euskara Batu idatzia gauzatu den moduaren ondoriozkoak.

Idazkera *fonetiko* hertsia inongo hizkuntzatan erabili ez delarik (idirolekto adina idazkera, mila sinbolotan transkribatua), idazkera

*fonologikoa* da helburu erdiesgarri bakarria. Eta idazkera fonologikoa, euskaraz eta edozein hizkuntzaz, idazkera *abstraktoa* da hein batez.

Testu batua *fonologiko xamarra* izanik ere (Arantzazun erabakitako Ortografia ongi pentsatua izan zen, eta egokia da), irakurtzeko *erregela fonologikoa*k irakatsi behar dira orain. Frantsesez egiten den bezala: "maison" [mɛzɔ̃] esaten da, baina "faisons" [fɑzɔ̃]. Ingelesez "read" [rid] ahoskatzen da batzutan, eta [red] bestetan. Eta hori *ikas*i egiten da. Bestela kode idatzi horrek ez du ezertarako balio (hizkuntza hondatzeko ez bada).

Erregela horiek irakatsi baino lehenago, *erabaki* egin behar dira. Noski!

Eta hemen hasten da gure arazoa: badirudi erregela fonologiko horiek *inola ere ez ematea erabaki dugula*; euskaldun elebidun (sasielbidun gehiegitan) hiztunaren "intuizio fonologikoa" aski izan daitekeelakoan.

Euskara gaur dagoen menpekotasun (morrontza hobe) osoan egonik, zer izan ote daiteke "intuizioa" hori? Gaztelaniaren fonologiazko erregela-multzoa ontzat hartzea Hegoaldean, eta frantsesarenak simetrikoki, Iparraldean; bidenabar, jakina, Euskal Fonologia bera gure begien aurrean *suntsitzen* ari dela erreparatzen dugularik. Hauxe da 25 urte honetan, "Euskara Batua"ren lepora eta aitzakian, aurkitzen duguna: *erdal fonologia* (biga, jakina) euskal fonologiari erabat gailenduta. Eta euskal testuen irakurketakoan (edo mintzakera osoan, ondorioz) halako hibridokeria okaztagarria sentitzen dugularik).

Premia osoa dago, nire ustez, eta besterik ez dut esaten orain dela urte mordo bat, *Ortoepi arauak* (segu-ruetatik hasita) ahalik eta azkarrenik plazaratzeko. Telebistagintzan, irratigintzan eta irakaskuntzan ari direnak erantzukizunaren aurrean umezurtz ez uzteko.

“L'écriture –idazten zuten Hagègek eta Haudricourtek 1978an– contrairement à ce qu'on a souvent dit, peut avoir une influence sur la prononciation”. Batez ere, gure kasuan bezala, *gainditu ezinezko* arrazoiengatik, izkribua eta esana elkarrengandik urruntzen direnean. Batez ere, Saussurek berak zioenez, “parce que l'image graphique n'est pas un vêtement, mais un *travestissement*”. (Soinuaren jazkera baino, *mozorroa* delako).

Eta azkeneko ohar bat honi buruz: Ahoskera batuaren beharra ez dela gaurkoa. Eleizaldek sentitu zuen azkarki mende honen haseran (Batuaren kondaira zehazki eza-gutzeko badugu gaur tresna bikain bat: Koldo Zuazo-ren tesia, Euskaltzaindiak berak argitaratua).

Hark ere hauxe eskatzen zuen: “un euskera... *uniforme* para lo escrito, y *aún para lo oral* literario: “Esa unificación, como la unificación *fonética*, no se pretende para el uso vulgar, sino tan solo para el uso literario” (Zuazo, 301).

5- *Ahoskera Batuari* dagokionez, bi arazo-multzo berezi behar direla esango nuke:

a) altxor *zaharreko* hitzen ahoskera (eta azentua eta entonazioa arazo “zaharrak” dira);

b) kultur hitz *modernoen* ahoskera.

5.1.) *Altxor zaharreko* hitzei buruz, nabarmen agertzen zaigu soluzio-bidea: *ez da ezer asmatu behar*. Euskal ahoskeren artean *bat hautatu* behar da, *erdal ahoskerak* oro arbuatuz. Morrontza linguistiko betean, eta erdal interferentzi itsaso betean ere bizi garenez gero, inolako “fundamentalismoan” erortzeko beldurrik gabe, *sailkapen-lana* egin behar dugu; ahoskera “jatorrak” eta ahoskera “arrotzak” sistematiko bereiziz. Madrilen, Parisen eta New York-en lan honi halako hertsikeri kutsua hartuko baliote ere, Euskal herri hau ez da Estatu Batuen edo Errusiaren irudi fidela... Gu miloi erdi bat gara. *apaltasunaren ausardia* behar dugu, mimetismo erotan ez ibiltzeko. Guk, euskaldunok, estoniarrek eta quebecarrek bezala, oso seriotan arduratu behar dugu hizkuntzaren jatortasunaz eta erdarakadez. Beste erremediorik ez dugu. Eta ahal dugunari eutsi.

5.2.) *Kultur hitzen* ahoskerari dagokionez, aldiz, tradiziara jotzerik ez dago. Hemen bai: hemen asmatu egin behar dugu bidea; maileguen idazkeraren alorrean egin dugun bezala.

Garbizalekeriaren txarranpina gaindituta dago. Mendebaldeko kulturarekin etorri zitzaizkigun tresna eta kontzeptuei buruz, “purismo”tan ibili beharrik ez dago. Krutwing-ek somatu zuen bide egokia 1950z geroztik; europarrak garela osoki irentsi; eta, lotsarik gabe, eta kultur hitzetan, erro greko-latinoetara jo.

Hitz horiek nola har? Erantzun erraxegiak albora utziz, eta *grafiari* dagokionez (eta honek garrantzi handia du) hiru bide daude:

- a) Hitzzen *egokitze fonologikoa* eginez, egokitze osoa.
- b) Hitz mailegatuen egokitze fonologikoa, *erdizka* bederen eginez (Axular eta Pouvreauren bidetik, gutxi gorabehera).
- c) Maileguak *beren hartan* eta egokitze fonologikorik batere gabe idatziz (Joanes Leizarragak estrainatutako bidetik).

Ez da egia a) eta b) bideak "kulturalrik gabeko herri atzeratu" dagokienik. Suomi, Txekia, Eslovakia, Hungaria, eta beste, ez dira herri analfabetoak, eta maileguak egokitzera jo dute; italiarrak eta espainiarrak ahanzi gabe.

Ingeles mundua, amerikarren joera konkistatzailearen besotik, indartu ahala, gauza nekeza da ingeles maileguen inbasioari tenk egitea. Hau egia da. Baina "fundamentalismo"tik urrun dauden herriek ere, mailegutza biluzi eta sistematikoari aurre egiten diote.

Suomieraren kasua izan daiteke interesgarriena (dexente "bigundu" bada ere). "Spekli" hitzak (ispilua), "peili" eman du suomieraz; "frouwa" hitzak (anderea), "rouva"; eta "propaganda" hitzak (Mitxelenak batzuetan aipatua), "ropakanta".

Suomieraz (Sauvageotek, eta gure Sagarnak ere bide beretik) azkenean, hala ere, suomierazko fonologiaren kontrako mailegu pilo bat onartu bide da azken urteotan. Lehen "strand" hitz arrotzak "ranta" eman bazuen ere, gaur "struktura"

ezin arrotzagoak... "strukturi" eman du... Geure indarrak neurtzeko balio baitezake!

Baina suomitarrek (Suomi estatu askatua da aspaldidanik, eta suomieradunak 4,5 milioi dira) gogor jokatu dute *are grafietan* ere. Hastapeneko kontsonante-multzoak, horretara, aldatu agertzen dira grafian ere: skr-, str-, spe-, kr-, tr-, pr-, gr-, dr-, br- eta fr-multzoek, *r-* soila eman dute grafian (gogoan har Mitxelenaren "ropakanta" famatua). Zergatik daude "erotuta" suomitarrek? Eta zer esango gure harropuzkeriaz? Horren seguru al da gure herriak kalterik gabe irentsiko dituela milaka mailegu arrotz horiek? Suomitarrek eta italiarrak gixarajo, ala gu fanfarroi ahobero?

Grafia kulteranoak onartu ondoren, orain zer? Hauxe da apostua kultur hitzen ahoskeraren alorrean. Eta ezin zaio ezikusia egin. Mailegu gehiegi da hau ere "euskal belarria"ren baitan uzteko.

Hungariarrek, ahalean bederen, egokitze fonologikoaren bidea hautatu dute: "Loanwords are lexical borrowings which have been *reshaped* according to the *Hungarian phonetic structure*", (Fodor III, 68).

Eta bide beretik txekiarrek Milletek azaltzen duenez: "les mots d'emprunt sont vigoureusement intégrés au système".

6- Erabakitako grafiak ontzat ematen baditugu (eta honez gero beste biderik gelditzen ez zaigula aitortu behar da), kalte fonologikoak gaur berton jasaten ditugunak baino

larriagoak izan ez daitezzen, *premia osoa eta hertsia dago ortoepi oinarriak plazaratzeko*.

6.1.) Hizkera arruntean, hiztegi zaharrari eta gramatikari dago-kienez, *premia ezin larriagoa dago* (Euskaltzaindiaren gidaritzapean ahalean hobe) *ahoskera batua* finkatzeko eta plazaratzeko. Oraindik ere egoera "helduta ez dagoela" esatea, iheskeria besterik ez da: kode idatziaren bidea proposatu zenean, egoera berdintsu zen; eta Euskara Batuaren kontrako joera, gaur baino azkarragoa zen, nik uste. "Il faut oser" esan ohi da frantsesez.

6.2.) Kultur hitzen alorrean, bidea "asmatu" behar da. Hebraieraz, adibidez, azentu-bide bat hartu dute hitz zaharrek (oxitonia), eta beste bide bat neologismoek (paroxitonia). Eta euskaraz ere, euskal azentuaz arduratu direnek ongi dakitenez, askotan azentuaren bidez berez daitezke mailegua eta altxor zaharrek hitza.

Gauza bat azpimarratu nahi dugu ohar honetaz, beraz: kultur hitzen ahoskeraren arazoak eta hizkuntza arruntaren ahoskerak, *bi maila* dituztela; eta beharbada bi soluzio. Maileguetan agian onar daitezkeen kontsonante-multzoak, adibidea, baztergarri gerta daitezke hiztegi arruntean. "Doktore" / "dotore" bikotean egin dugun bezala (ñabardura semantikoak biltzeko aukera emanaz, gainera).

Bide batzuk markatu ditu Euskaltzaindiak azken bolara honetan, egia esan. Baina inondik ere ez aski.

7- Baina aurrean dugun egin-kizun gaitzari aurre egitekotan, *jarrera-aldaketa* lortu behar dugu aurrenik. Zinez behar dugu sinetsi euskara *hizkuntza bizia* dela; eta *ahozko kodea behar duela* orain derrigorrez.

Dato-pila dugu, zain.

Dato-altxorrik garrantzitsuena ("inportaziozkoena", esango luke Eguesko Lizarragak) Euskaltzaindiak berak argitara du, Ana Maria Etxaide-ren eskutik, orain dela *bederatzi* urte (Iker 3-4). Testuak begiratu beharrean Azkueren inkesta zehatz honen emaitzak kontutan hartuko balira, berehala aldatuko litzateke "ez-" praktikaren grafia, esate baterako; Azkuek, Mitxelenak, Gavelek, eta Krutwigek berak ere praktikatuak diren bidetik. Baina, jakina, horretarako *testuen tirania utzi behar da* alde batera (ahoskeraz ari garenez); eta ahoskeren multzoan eta munduan bidea bilatu eta aurkitu.

"Iker" bikoitz horrez gain, mila inkesta, ikerlan, tesi eta txosten baliagarri dago gaur egun (lehen ez zegoen). Eta altxor miresgarri hori guztia *zain dago*. Eta beharrezkoa da osoki.

Hor dago, era berean, "Auspoa" sorta bikaina; Aita Barandiaranen bilduma eskerga; hor ere bai, nola ahantz, Euskaltzaindiak berak gidatzen duen Atlas-aren bilketa gaitza. Testuak pitin bat alde batera utzi, eta hor dago gaurko auzia erabakitzeko oinarri bikaina.

8- *Izari soziologikoaren garrantziaz*, orain, bi hitz bederen.

Lehen intuizioz somatzen genuena, frogaturik dago gaur egun. Hizkuntzalarien arteko akordioak ongi dira;

baina faktore erabakitzailea beste hau da: hizkera batua *nortu eta erabiliko duen gizarte-atala* indartzea. "Ah! si nous avions, Bretons, Irlandais, les mouvements populaires en faveur de la langue que vous avez au Pays Basque", esan zidan behin Per Denez keltista ezagunak. No comment!...

Eskarmentuak erakutsi duenez, *kaletar multzo* bat behar da berreskurapenaren gune bihurtzeko.

Norvegiako "nynorsk" izeneko estandarraren gorabeherak eta patu exkaxa izan daiteke denetan argigarriena. Joan den mendean Aasen-ek tentuz eta jakituriaz zehazki prestatua, eta danimarkar kutsua duen "bokmal" delakoari nagusitzekotan mamitua (berau, jatorriz eta izatez, "lehengo nagusien hizkera" izanik), ez zaio azkenean nagusitu. 1944an bere gailurra iritsi ondoren (eskoletako %34an irakatsia), egun %16,5etan dauka bere heina. Eta gakoa hau da dudarik gabe: kutsatu gabeko "nynorsk" berriari, muzin egin diote hiriek (Oslo, Bergen). Eta danimarkeratik urrunago, eta Norvegiako baserritar-dialektoen artean eraikitako norvegiera berriak, kaletar oinarri demografikorik ezaz, porrot egin du. Kaletarren hizkera lardaskatua, "landsmal" kutsatu gabeari aisa nagusitu zaio...

Nola lortu zuen Mustafa Kemal "Ataturk" liderrak Turkiako hizkuntz iraultza harrigarria? Faktore askoz, jakina. Guk bakar hau azpimarratuko dugu gaurkoan: proposatu zuen mintzabide batua *Turkiako hiriburu nagusietako hizkera* zela: "la graphie reflète fidèlement la *phonétique* d'une langue naturelle, celle des grandes villes: Istanbul, Ankara, Izmir" (Hagège, I, 163). Hori dela bide, turkiar

batua eta hirietako ahoskera, oso antzekoak dira: "l'orthographe turque est intégralement phonétique"

Nongo hizkera hartu zuen Ho-Chi-Minh-ek Vietnam-go batua egiteko? Hanoi eskualdekoa. Bide beretik Filipinetako "tagalog" delakoa, Manilan bildua da. Eta frantses ofiziala Parisen inguruko Ile de France-n.

Fenomeno bera gertatu da hebraiera ofizialean. Teorian ahoskera "sepharad"ean finkatua, eta teorian ahoskera "ashkenazia" baztertua izanik ere, *Mendebaldeko judu boteretsu eta dirudunen* ahoskera ahula nagusitu zaio proposatutako semitiko hertsuari: "le juifs européens ... ne retiennent que les traits orientaux compatibles avec leurs habitudes articulatoires" (Masson, 462).

Katalanek ere joera bera somatzen dute: Bartzelonako hizkera narratza nagusitzen ari zaiela barrualdeko katalanera jatorragoiei.

Euskal Herrian horrelako hiri euskaldunik ez izanik, zer egin? Hauxe da euskaldun soziolinguistek oso gogoan izan behar duten arazo nagusietako bat. *Non koka* euskararen berreskurapena?

Eireko adibide hitsa hor dago. Eiren ere hiririk ez zegoen. Eta erokeria zen gaelikeraren pizkundera Connemarako eskualde txiro eta jendegabetuetan kokatzea. Liskarra hirietan, dinamika duten eskualde eta giroetan, kultur-guneetan gauzatzen da. *Kaletar gazte multzoek* gaur osatzen duten gune euskalduna puskatu nahi izatea ("egunkaria", A.E.K., U.E.U.) aski da gaur Euskal Herriak *jasaten* (jasan egiten baitu, benetan) duen agintaritz politikoa *erabat gaitzesteko*.

Bai hori eta bai demografi datuak kontutan hartzen baditugu, bihar nagusi daitekeen euskara-mota nolakoa den soma daiteke. “Laphurtar klassikoak”, adibidez, ez du etorkizunik batere; are gutxiago gaurko hitzun dinamikoek ezagutzen ez duten ahoskera delako. /h/ izkiriitzea egokia, eta beharrezkoa izan bada ere, /h/ ahoskatzeak ez luke sentidurik (*ahoskera batuan*, alegia). Era berean, eta gaztelaniaz mintzo direnei /j/ belarea erraza bazaie ere, ez dago arrazoirik hori bultzatzeko; bizkaitar anitzek, nafarrek eta Iparraldekoek ez baitute soinua ahoskatzen. Baina hau sendotzeko, erantzukizun larria dute telebistak eta irratiak, jadanik esana dudanez.

Gune soziologiko nagusia, iruditzen zaidanez, bikoitza izan daiteke: *Gipuzkoa-Bizkaia* eskualdean, oro har, batetik; eta *Donostia inguruko Unibertsitate eta kultur munduan* (UZEI, Elhuyar, “Egunkaria”, etab.) bestetik. Baina deliberatuki *Donostia euskalduntzera* joan behar da, eta

Donostia *Euskal Herri euskaldunaren sinbolo eta bilgune bihurtzera.*

Eta amaitzera noa.

Beste puntu batzuk ukitzeko asmoa nuen: euskal silabaketaz (azkeneko “Gomendioetan” esaten den zerbaiten aurka), azentu batuari buruz, etab.. Baina hau aski delakoan, ondoko lanetarako utziko ditugu.

Hemengo tirabirak, zernahi esanagatik ere, ez dira larriak. 1946an, adibidez, “Islam-en etsai” deklaratu zuten Kasravi hizkuntzalaria, persiar hiztegia desarabiartu nahi zuelako... Eta hil egin zuten!

Hemengoa, zenbait aldiz garratza eta mingarria bada ere, ez da horretara iritsi.

Aurrera egin daiteke, zalantzarik gabe.

*Eta aurrera egin behar da.*